



TOLOSAKO
UDALA

JM19_070

**TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN
PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN
EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN
IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO
ZERBITZU KONTRATUA**

TXOSTENA: JM19_070

**BALIABIDE NAHIKOA EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOARI ETA KONTRATAZIO
IRIZPIDEEI BURUZKO TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Tolosako Udala.

ESKAERA: Zerbitzu kontratua martxan jartzea.

URTEA: 2019

0. TXOSTENAREN HELBURUA :

Txosten honen helburua da Tolosaldeko berdintasun politikak eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa bultzatzeko gunearen Exekuzio Proiektuaren eta Jarduera Proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritza fakultatiborako zerbitzuaren kontratazioaren egokitasuna justifikatzea eta kontratazioaren ezaugarri nagusiak finkatzea, Kontratazio Departamentuak esleitze prozedura abian jar dezan.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua da Tolosako berdintasun politikak eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa bultzatzeko gunearen EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO ASISTENTZIA TEKNIKOKO ZERBITZUAK EMATEA.

Lan hauek egin beharko dira:

Goian aipatutako Exekuzio Proiektuaren eta Jarduera Proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritza fakultatiboaren lanak egitea (obra zuzentzea eta obra exekuzioko zuzentze lana), baita ere, segurtasunari eta osasunari buruzko koordinazio lanak, eta gainbegiratu eta betetzea obren kalitate kontroleko programa, eta hondakinen kudeaketa programa. Udalarekin eta herritarrekin egin beharreko bileretan asistentzia teknikoa ematea ere zerbitzuaren parte izango da.



TOLOSAKO
UDALA

JM19_070

TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO ZERBITZU KONTRATUA

Exekuzio Proiektuaren idazketan eta Zuzendaritza fakultatiboan sartzen dira, bereziki, Eraikuntzaren Antolamenduaren azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezarritako lanak, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta gainerako aplikazio arauetan ezarritakoak.

Behar izanez gero, proiektu aldatu edo osagarri guztiak idaztea, txostenak egitea, ziurtagiriak egitea eta obra bukaerako dokumentuak edo obraren likidazioko dokumentuak egitea ere zereginen parte da.

2. KONTRATAZIOAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Sektore Publikoko Kontratu Legearen 28. artikulua horrela dio:

“1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación (art. 28).”

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 17. artikulua arabera Udalaren eskumen propioztat hartzen dira ondorengoak:

“27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

(...)

28) Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.”

Tolosako Udalak Tolosaldeko berdintasun politikak eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa bultzatzeko gunea sortzeko asmoa du. Horretarako udalaren jabetzako hiru lokal egokituko ditu. Zentzu horretan, udal jabetzako hiru lokal aipatutako erabilerarako egokitzea Udal eskumen propioa da.



**TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN
PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN
EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN
IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO
ZERBITZU KONTRATUA**

3. CPV KODIGOA

CÓDIGO CPV: 71240000-2 “Servicios de arquitectura, ingeniería y planificación”

**4. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA URTEZ-URTEKO APLIKAZIOA. KONTRATUAREN
BALIO ZENBATETSIA**

Aurrekontua **43.000€-koa da**, %21eko BEZa barne, horietatik 35.537,19 € printzipalari dagozkio eta 7.462,81 € %21eko BEZari. Kontratuaren balio zenbatetsia 35.537,19 €-koa da.

Kontratuaren partida honakoa da: 0700 629.10.15300

5. LOTEAK

Azaroaren 8ko 9/2017 kontratuen legearen 99. artikuluko 3. puntuan honakoa jasotzen da:

“3. Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta.

No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras.

En todo caso se considerarán motivos válidos, a efectos de justificar la no división en lotes del objeto del contrato, los siguientes:

a) El hecho de que la división en lotes del objeto del contrato conlleve el riesgo de restringir injustificadamente la competencia. A los efectos de aplicar este criterio, el órgano de contratación deberá solicitar informe previo a la autoridad de defensa de la competencia correspondiente para que se pronuncie sobre la apreciación de dicha circunstancia.

b) El hecho de que, la realización independiente de las diversas prestaciones comprendidas en el objeto del contrato dificultara la correcta ejecución del mismo desde el punto de vista técnico; o bien que el riesgo para la correcta ejecución del contrato proceda de la naturaleza del objeto del mismo, al implicar la necesidad de coordinar la ejecución de las diferentes prestaciones, cuestión que podría verse imposibilitada por su división en lotes y ejecución por una pluralidad de contratistas diferentes. Ambos extremos deberán ser, en su caso, justificados debidamente en el expediente.



TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO ZERBITZU KONTRATUA

Kasu honetan lote bakarra aurreikusten da aurreko artikuluko b) atalean oinarrituta. Izan ere, kontratuaren helburu diren lan desberdinak independenteki gauzatzeak Teknikoki asko zailduko luke lanaren gauzatze zuzena eta baita honen jarraipena ere.

6. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

600.000 €-ko erantzunkizun zibileko aseguria eduki beharko du lizitzaileak.

7. EXEKUZIO-EPEA

Prestazioa emateko epea (Oinarrizko Proiektua, Exekuzio Proiektua eta Jarduera Proiektua aurkezteko) guztira 5 HILABETEKOA izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori eten egingo da udalak aurkeztutako dokumentazioari buruz zerbait esan behar duen bakoitzean eta horri obra zuzendaritza fakultatiboari dagokion prestazioari dagokion epea gehitu beharko zaio; horretarako, dagozkion aktak egingo dira edo bertan behera uzteko eta berriro hasteko akordioak hartuko dira.

Orientazio gisara, zatikako exekuzio epeak hauek izango dira:

- BI HILABETE Oinarrizko Proiektua aurkezteko.
- HIRU HILABETE Exekuzio Proiektua eta Jarduera Proiektua aurkezteko udalak Oinarrizko Proiektua onartu duela jakinarazten duenetik.
- Obra zuzendaritza fakultatiboko zerbitzua emateari dagokion iraupena Exekuzio Proiektuan obrak egiteko aurreikusitakoa izango da. Horrez gain, SPKLren 111.5 artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, obra bukatu eta urtebetera (12 hilabete), obra zuzendaritzak azken txostena igorri beharko du

8. GUTXIENeko LAN-TALDEA

Enpresa esleipendunaren lantalde teknikoak disziplina anitzekoa izan beharko du eta gutxienez honako kideek osatuko dute:



**TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN
PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN
EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN
IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO
ZERBITZU KONTRATUA**

- ARKITEKTO ZUZENDARI 1, EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETAZ ETA "Ley 38/1999 de 5 de noviembre sobre Ordenación de la Edificación" Legeko 12. artikulua araberako OBRA ZUZENDARITZA arduratuko dena.
- ARKITEKTO TEKNIKO edo APAREJADORE 1, gutxienez "Ley 38/1999 de 5 de noviembre sobre Ordenación de la Edificación" Legeko 12. artikulua araberako OBRAREN EXEKUZIOAREN ZUZENDARITZAren kargu egingo dena.
- INGENIARI EDO ARKITEKTO 1, instalazioetan aditua eta esperientziaduna, proiektuko instalazioen atalaren idazketaz eta instalazioen exekuzio zuzendaritzaz arduratuko dena eta, behar izanez gero, obra amaierako ziurtagiriak osatzen lagunduko duena.
- SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE 1, laneko arriskuen prebentzioan aditua, eta esperientziaduna, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioko titulazioa duena.

Teknikari berdinak goian zehaztutako funtzio bat baino gehiago bete ahal izango du arlo bakoitzari dagokizko tituluazioak eta esperientzia ziurtatzen baditu.

Proiektuen idazketan edota obra garaian edozein pertsonal aldaketa edo gehiketa egiteko, aurretik Udal Zerbitzu Teknikoen onarpena beharko da.

Zuzendaritza fakultatiboak OBRAN eman beharko duen dedikazio haztatua gutxienez astean 20 ordukoa izango da.

9. AZPIKONTRATAZIOA

Bai. Instalazioetan aditua eta Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea azpikontratatu ahal izango dira.

Dena den, memoria teknikoan aipatuko da adjudikaziodunak zer enpresa azpikontratatu dituen. Enpresa azpikontratista horiek aldatuz gero, udalaren berariazko baimena beharko da.

10. ESLEIPEN PROZEDURAREN JUSTIFIKAZIOA.

Lanen objektua, balorazio irizpideak eta aurrekontua ikusita, prozedura ireki sinplifikatu bitartez esleipena bideratzea proposatzen da.



TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO ZERBITZU KONTRATUA

11. ESLEITZE-IRIZPIDEAK

Zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak: 55 puntu gehienez.

Irizpidearen deskribapena	Formula	Formularen justifikazioa	Haztapena
PREZIOA	$R \text{ puntuazioa} = 35 - 1,5 \times (\text{Baja K} - \text{Baja R})$	Prezioko puntuaziorik handiena emango zaizkio proposamen baxuenari (K), eta 0 puntu lizitazio-prezio berdintzen duenari, eta gainerakoei (R) ondorengo formula aplikatuko zaie. Bajak portzentualki adieraziko dira, eta emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango dira.	35puntu arte
FORMAZIOA GENERO PERSPEKTIBAN	Arkitekto zuzendariak Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko edota hirigintza eta generoaren inguruko formakuntza izatea baloratuko da: - 5 puntu, aipatutako gaietan gutxienez 150 orduko prestakuntza egiaztatuko titulu bakoitzeko. - 10 puntu, aipatutako gaietan 150 ordutik gorako prestakuntza egiaztatuko titulu bakoitzeko.		10 puntu arte
OBRA ZUZENDARITZAKO TALDE TEKNIKOAK BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEEN PROIEKTUAK IDAZTEN EDOTA HORRELAKO OBRA-ZUZENDARITZAN ESPERIENTZIA IZATEA	Arkitekto zuzendariak berdintasun politikak eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa bultzatzeko guneen proiektuak idazten esperientzia izatea baloratuko da. Oinarrizko edo Exekuzio Proiektu bakoitzeko 2,5 puntu emango zaizkio; gehienez 5 puntu.		10 puntu arte
	Arkitekto zuzendariak berdintasun politikak eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa bultzatzeko guneen obra-zuzendaritzan esperientzia izatea baloratuko da. Obra bakoitzeko 2,5 puntu emango zaizkio; gehienez 5 puntu.		

Zifren edo ehunekoen bidez baloratu ezin diren irizpideak: **MEMORIA TEKNIKOA** 45 puntu gehienez.

Irizpidearen deskribapena	Azalpena	Haztapena
TXOSTEN TEKNIKOA	Aurreproiektuaren edukiaren azterketa. Lizitatzailleek aurreproiektuaren azterketa xehea egin izana erakutsi beharko dute, egon litezkeen akats edo indefinizio posibleen aurrean egindako proposamenak ere zehaztuz.	15 puntu arte
	Gertuko espazio publikoa eta sarrera nagusia hobetzeko proposamena Lizitatzailleek genero ikuspegitik begiratuta gertuko espazio publikoa hobetzeko irizpideak proposatu beharko dituzte. Baita emakumeen etxearen sarrera nagusia (Emakumeen plazara ematen duena) eta lokalaren irudia hobetzeko eta erakargarritasuna areagotzeko proposamenak ere.	10 puntu arte



TOLOSAKO
UDALA

JM19_070

**TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN
PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN
EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA JARDUERA PROIEKTUAREN
IDAZKETA ETA OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBORAKO
ZERBITZU KONTRATUA**

	Proiektuaren exekuzioan Ingurumen irizpideak sartzeko konpromezua. Atal honetan aspektu hauek baloratuko dira: Hondakinen kudeaketa optimizatzea, material jasangarriak erabiltzea edota efizientzia energetiko altuko instalazioak ezartzea.	10 puntu arte
LAN PROGRAMA	Proiektuari esleitutako giza baliabideen antolaketa, lan banaketa eta lana gauzatzeko kronograma zehatza. Lizitatzailleek azalduko dute nola antolatuko duten talde teknikoa kontratua exekutatzeke eta proiektuaren eta obraren jarraipena udalarekin eta herritarrekin nola egingo den. <i>(Ezingo da ezer esan arkitekto zuzendariaren eta arkitekto teknikoaren lanbide esperientziari buruz, zeina sartu beharko den proposamen ekonomikoaren kartazalean).</i>	10 puntu arte

12. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Ez da kontratuaren aldaketarik aurreikusten.

13. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduraduna Tatiana Ramirez udal arkitektoa izango da.

Tolosan, 2019ko abenduaren 27an.

Jone Miner Aginaga
Hirigintza burua